

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**285/2020 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, diputatu nagusiarena, zeinak onesten baitu Lazarraga sarien seiigarren edizioaren deialdia**

Diputatu Nagusiaren Sailak, Bai Euskarari elkartearekin lankidetzan, Lazarraga Sarien seiigarren edizioaren deialdia egin du, euskarak eremu sozioekonomikoan duen presentzia eragin eta handitzearen entitate eta pertsona batzuek eta besteek egindako lana saritzeko.

Sarion bidez, ezagutza instituzional eta soziala agertuko da hizkuntzaren normalizazioaren eremuan egindako lanagatik, hain zuzen, Arabako lurralde historikoko eta/edo Trebiñuko enklabean eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia eragin eta handitzen egindako lanagatik.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lazarraga sarien seiigarren edizioaren deialdia onestea.

Bigarrena. Deialdia arautuko duten oinarriak onestea. Eranskinean daude.

Hirugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa, ebazpena eman duen organo berean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**

**ERANSKINA****OINARRIAK**

Arabako Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiaren Sailak, Bai Euskarari elkarrekin lankidetzan, Lazarraga Sarien seigarren edizioaren deialdia egin du, euskarak eremu sozioekonomikoan duen presentzia eragin eta handitzearen entitate eta pertsona batzuek eta besteek egindako lana saritzeko.

Sarion bidez, ezagutza instituzional eta soziala agertuko da hizkuntzaren normalizazioaren eremuan egindako lanagatik, hain zuzen, Arabako lurralde historikoko eta/edo Trebiñuko enklabeen eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia eragin eta handitzen egindako lanagatik.

**Lehenengoa. Xedea**

Lazarraga Sarien helburua da saritzea Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabeen hainbat erakundeak eta pertsonak esparru sozioekonomikoan euskararen presentzia areagotzeko eta ezartzeko egin duten lana.

**Bigarrena. Parte hartzaileak**

Lazarraga sarietarako hautagai izan ahalko dira zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabeen duten erakundeak edo pertsona fisikoak.

Kanpo geratzen dira sektore publikoko erakundeak.

**Hirugarrena. Sariak**

1. Lazarragaren eskuizkribuaren 5 ale izango dira irabazle ateratzen diren hautagaien sariak.

2. Guztira, bost sari ezartzen dira, bai erakundeentzat, bai pertsona fisikoentzat.

**Laugarrena. Irizpideak**

Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskarak eremu sozioekonomikoan duen presentzia ezartzeko eta areagotzeko egindako lana baloratuko da. Helburu hori du hain zuzen ere "Lanabes" ekimenak.

Eremu sozioekonomikoan egindako euskararen kudeaketa baloratzeko, kontuan hartuko dira bi irizpide hauek:

- Zer neurri ezarri diren zerbitzua euskaraz emateko.
- Zer neurri ezarri diren lana euskaraz egiteko.

Era berean, ezarritako beste neurri edo baliabide batzuk ere kontuan hartuko dira, hala nola:

- Euskaraz lan egiteko baliabideak.
- Kontratazioak.
- Barne agiriak.
- Kanpo komunikazioa.
- Hizkuntza paisaia.
- Produktua kontsumitzen eta erabiltzen duten pertsonentzako elementuak.
- Lanbide Heziketako praktikak euskaraz egitea enpresetan.
- Formazioa euskaraz eskaintzea.
- Euskaraz ikasteko aukera eskaintzea lanean.
- Erantzukizun sozialarengatik nabarmendutako jarduera.
- Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzearekin zerikusia duen beste edozein neurri.

**Bosgarrena. Prozedura eta epea**

1. Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabeen bizi diren pertsona fisiko edo juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaitzak.

Emandako informazioa eta egindako proposamenaren motibazioa baloratuko dira, eta, horretarako, informatikazko edo ikus-entzunezko edozein euskarri aurkeztu ahal izango da, erakunde edo pertsona hautagaiaren ekintzak erakusteko.

2. Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak Diputatu Nagusiaren Saileko Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzura bidali beharko dira, "VI. Lazarraga Sariak" jarri beharko da, eta honako helbide elektronikoa honetan entregatu ahal izango dira: [afa-dfa@araba.eus](mailto:afa-dfa@araba.eus) edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoa Komunean (<https://web.araba.eus/es/-/tr-registro-electronico-comun>). Pertsona fisikoek Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak.

**Seigarrena. Epaimahaia eta erabakia**

1. Diputatu nagusiak izendatuko du epaimahai kalifikatzailea eta "Lanabes" ekimena osatzen duten kideek osatuko dute epaimahai hori (<http://lanabes.eus/es/participantes-empresas-instituciones/>). Epaimahai horrek hautatuko ditu hautagairik onenak, eta, ondoren, hautagai irabazlea nor izan den emango du jakitera sariak banatzeko galan.

2. Epaimahaiak emakumeen eta gizonen osiera orekatua izango du, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikulua betez, eta ALHAOn argitaratuko da.

3. Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

4. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jotzeko errekurtoa aurkeztu. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

5. Deialdi honetako sariak nori eman behar zaizkion diputatu nagusiak ebatziko du foru agindu bidez, epaimahaiaren proposamena ikusirik. Agindu hori arrazoitua izan beharko da, eta amaiera emango dio administrazio bideari.

**Zazpigarrena. Oinarriak onartzea**

Parte hartzaileek, deialdi honetan parte hartuz, onartu egiten dituzte deialdian bertan zehazten diren baldintza guztiak, eta berariaz jartzen haren pean.

**Zortzigarrena. Eskumena**

Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailak baino ez du deialdi honetan sortzen diren auzi guztiak ebazteko eskumena.

**Bederatzigarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahal dena egingo da hedabide sozialetan zabalkundetik handiena izan dezan.

**Hamargarrena. Datu pertsonalak**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko T-67 EUSKARA SUSTATZEKO izeneko fitxategian sartuko direla.

Datu horien tratamendua Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Vitoria-Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>